

GINARRIZKO ORDAINKETA KONTUA ZER DA?

Oinarrizko ordainketa-kontua kontu korrantea da, eurotan eta ordainsaririk gabekoa, Europar Batasunean legez bizi den edozein pertsona fisikok kontratatu ahal duena, nahiz eta asilo-eskatzailea izan, edo bizileku-baimenik izan ez arren, ezin bada kanporatu, **betiere Espainiako beste erakunde batean ordainketa-konturik ez badu**.

Oinarrizko ordainketa-kontua ezin izango da erabili kontsumitzaile bati ez dagozkion helburu profesionaletarako.

KONTUA IREKITZEKO PROZEDURA

Kontu hau irekitzeko, interesdunak bere burua identifikatu beharko du agiri fede-emaile bat aurkeztuz (NANa, pasaportea, bizileku-txartela...). Halaber, kontua eskuratzeko eskubidea duela egiaztatu beharko du, Europar Batasunean bizi delako edo arestian adierazitako beste bi kasuetako batean dagoelako. Interesduna Espainian bizi ez bada, egoitza fiskaleko aitorten egokia sinatu beharko du. Bestalde, nahitaezkoa da kapitalak zurtzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeko araudia betetzeko eskatutako informazioa ematea, bereziki interesdunak egindako jarduera ekonomikoari buruzko informazioa.

Bankuak kontratu aurreko informazioa, komisioen informazio-dokumentua eta kontua irekitzeko sinatu beharreko kontratuaren zirriborroa emango dizkio interesdunari.

EZAUGARRIAK ETA KOMISIOAK

Titularrak zerbitzu hauek egin ahal izango ditu kontu honen bidez:

- Funtsak eurotan gordailatzea.
- Kontu honi lotutako oinarrizko zordunketa-txartela kontratatzen badu, dirua eurotan ateratzea Bankuaren bulegoetan edo Bankuak Europar Batasunean dituen kutxazain automatikoetan.
- Europar Batasunean ordainketa-eragiketa hauek egitea:
 - o Zordunketak eurotan helbideratzea.
 - o Oinarrizko zordunketa-txartelaren bidezko ordainketa-eragiketak, lineako ordainketak barne (online).
 - o Transferentziak eurotan egitea, agindu iraunkorrak barne, Bankuaren bulegoetan eta urrutiko bankako zerbitzuen bidez, betiere bezeroak Bankuaren kanal anitzeko zerbitzua kontratatzen badu.

Kontua eta zerbitzu horiek ireki eta erabiltzeagatik, titularrak hilean 3 euroko komisio bakarra **ordaindu beharko du**, eta komisio hori hilero likidatuko da.

Komisio bakar hori ordaintzearen truke, titularrak urtean 120 ordainketa-eragiketa egin ahal izango ditu, eurotan, Europar Batasunaren barruan, zordunketa helbideratu eta transferentzia gisa,

transferentzia iraunkorren bidez egindako ordainketak barne. Kopuru horretatik gorako ordainketek Bankuaren Prezio Estandarretan ezarritakoaren arabera bidezkoak diren komisioak sortuko dituzte, eta titularrari haien berri emango zaio aldez aurretik. Prezio horiek interesdunen eskura daude bulego guztietan eta web gunean: www.bancosantander.es.

Informazio gisa, jakinarazten da UTB -% 0,896 dela, baldin eta urtean zehar egunero 4.000 euroko saldoa mantentzen bada, urtean 36 euroko komisioarekin (3€/hileko) eta urtean 0ko ordainsari-tasa nominalarekin.

DOAKO ERREGIMENA AHULTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAT

Titularrak ez du kontuaren mantentze-komisiorik ordaindu beharko, baldin eta ahultasuneko edo finantza-baztertzeko egoera berezian dagoela egiaztatzen badu, martxoaren 22ko 164/2019 Errege Dekretuak, ordainketen oinarritzko kontuetarako doako erregimen bat ezartzen duenak, aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Doako erregimena jasotzeko eskubidea izateko, titular eta baimendun guztiek ahultasun-egoeran daudela frogatu beharko dute. Horretarako, titularrak edo titularrek Bankuari eskatu beharko diote doako erregimena aplikatzeko eskubidea aintzat har dezala. Horrez gain, frogatu beharko dute beren diru-sarrerak ekonomikoak, urteko eta familia-unitateko, ondorengoak baino handiagoak ez direla:

- Eskaera egitean indarrean dagoen hamabi ordainsariren efektu anitzeko errenten adierazle publikoaren hirukoitza, familia-unitate bateko kide ez direnen kasuan.
- Adierazle hori hiru aldiz eta erdi, gutxienez lau kideko familia-unitateetako kideen kasuan.
- Adierazle horren laukoitza, lau kideko edo gehiagoko familia-unitateen edota familia ugari izaera aitortuta daukatenen kasuan, edo familia-unitatean ofizialki errekonozitutako % 33ko edo gehiagoko ezgaitasuna duen kide bat dutenen kasuan.

Horrez gain, familia-unitatea osatzen duten kideak ezingo dira, zuzenean edo zeharka, ondasun higiezinaren eskubide errealeko titular izan, ohiko etxebizitzaren izan ezik, ezta merkataritza-sozietatearen titulartasunik eduki ere.

Gainera, familia-unitateko kideak ezingo dira zuzenean edo zeharka ondasun higiezinaren gaineko eskubide errealeko titular izan (ohiko etxebizitzarenak salbu), ezta merkataritza-sozietateen titulartasun errealeko jabe izan ere.

Familia-unitatea kontzeptua zehazteko, Legeak, Pertsona Fisikoen Errenta Zerga arautzen duenak, ezarritakoaren arabera jokatu da.

Titularrak, edo titularrek eta baimendunek, Bankuari eman beharko diote familia-unitatea osatzen duten pertsona guztien inguruko ondorengo informazioa:

- Familia-unitatea osatzen duen pertsona kopurua; horretarako, familia-liburua edo izatezko bikote gisa inskribatu izanaren egiaztapen aurkeztu beharko da.

- Jasotako diru-sarrerak; haiek egiaztatzeko, kide bakoitzak dokumentu hauetariko bat aurkeztuko beharko du:
 1. Azken zerga-ekitaldiko errenta-ziurtagiria eta, kasua denean, Ondarearen gaineko Zergaren agiria
 2. Jasotako azken hiru nominak
 3. Langabezia-prestazioen edo -subsidioen ziurtagiria, erakunde kudeatzaileak igorria; hartan hilean zenbateko kopurua jasotzen den agertu beharko da.
 4. Autonomia erkidegoek edo tokiko erakundeek emandako gizarte laguntzako soldatak, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerak edo gizarte-laguntzako antzeko laguntzak.
 5. Norberaren konturako langileen kasuan, jarduera uzteagatiko prestazioa jasotzen bada, erakunde kudeatzaileak igorritako ziurtagiria; hartan, hilean zenbateko kopurua jasotzen den agertu beharko da.

Titularrak ez badu dokumentazio hori, erroldatuta dagoen Udaleko gizarte-zerbitzuek igorritako txostena aurkeztu beharko du. Txosten horretan familia-unitatearen eraketa agertu behar da, edo ordainketen oinarritzko kontuko doako erregimena jasotzeko egokitasuna arrazoitu.

Halaber, Titularrak Bankuari baimena emango dio baliabide telematikoen bidez ondasun higiezin eskubide errealeen edo merkataritza-sozietatearen titulartasunik ez duelaren informazioa lortzeko.

Bankuak titularrari idatziz eta doan jakinaraziko dio doakotasun-egoera onartu ala baztertu den, titularrak adierazitako informazioa eman eta 30 eguneko epean gehienez ere. Epe hori igarota, Bankuak ez badio mezurik bidali, doakotasuna onartu duela ulertuko da.

"Idazkian bezeroak ukatzearen aurkako erreklamazioa jartzeko duen eskubideari buruzko informazioa jasoko da."

Kontuaren doako erregimena bi urtez mantenduko da, hura onartzen den unetik hasita. Epe hori igaro baino bi hilabete lehenago, Bankuak titularrari eskatuko dio ahultasun-egoera egiaztatzen duen informazioa eguneratzeko. Nolanahi ere, titularrak doako erregimena atzitzeko eskubidea galduko du ahultasun-egoeran edo finantza-bazterketa arriskuan egoteari uzten diola egiaztatzen badu Bankuak.

KONTUARI LOTUTA KONTRATA DAITEZKEEN BESTE PRODUKTU BATZUK

Oinarritzko ordainketa-kontua kontratatzeko, **ez da beharrezkoa Bankuaren beste produktu edo zerbitzurik eskuratzea**. Nolanahi ere, nahi izanez gero, titularrak honako hauek kontratatu ahalko ditu:

- **Banka digitaleko zerbitzuak.** Urrutiko kanalen bidez, kontuaren titularrak kontua kudeatu eta ordainketa-eragiketak, transferentziak eta agindu iraunkorrak egin ahal izango ditu, Bankuarekin adostutako gako-sistemaren bidez.
- **Oinarritzko zordunketa-txartela,** kutxazain automatikoetan dirua zordunduta kentzeko eta



ordainketa-eragiketak egiteko, kontuan zordunduta.

Banka digitaleko zerbitzuak kontratatzeak ez dauka komisiorik, ezta zordunketa-txartela jaulkitzeak eta mantentzeak ere.

Kutxazain automatikoetan txartela erabiliz eskudirua zordunketa bidez ateratzeagatik, komisio hauek sortuko dira:

- Bankuak Espainian dituen kutxazainetan: salbuetsita.
- Munduan zehar Santander markarekin identifikatuta dauden kutxazainetan: ez dago komisiorik.
- Beste erakundeek Espainian dituzten kutxazainetan: Bankuak kutxazainaren titularra den erakundeak kobratutako komisioa egotziko dio, eta eragiketa egin aurretik, kutxazainaren pantailetan komisioaren zenbatekoa agertuko da.
- Beste erakunde batzuek Espainiatik kanpo baina EBko herrialdeetan dituzten kutxazainetan: Bankuak kasu bakoitzean kutxazainaren titularra den erakundeak kobratutako komisioa egotziko dio (inolaz ere ez da ateratako zenbatekoaren % 0,20 gehi 1,30 euro baino gehiago izango).
- Beste erakunde batzuek Espainiatik kanpo eta EBko herrialdeetatik kanpo dituzten kutxazainetan: ateratako zenbatekoaren % 4,50 eta gutxienez 3,50 euro.

Kutxazain automatikoetan kontsultak egiteagatik:

- Bankuarenak: ez dago komisiorik.
- Beste erakundeenak: 0,75 euro.

Europar Batasunetik kanpo egindako erosketa-eragiketengatik: transakzio bakoitzaren zenbatekoaren % 3.

GATAZKAK EBAZTEKO PROZEDURA

Bankuarekin desadostasunik izanez gero oinarritzko ordainketa-kontuarekin edo lotutako zerbitzuekin lotutako edozein gairi buruz, titularrak erreklamazioak egin ahal izango ditu Erreklamazio eta Bezzeroaren Arreta Zerbitzuaren aurrean, Apartado de Correos 35.250, 28008 Madril, posta elektronikoz santander_reclamaciones@gruposantander.es helbidera. Ebazpenarekin ados egon ezean, edo aplikagarri den araudiak ezarritako epea igarotakoan ebazpenik jaso ez bada, titularrak Espainiako Bankuko Erreklamazio Zerbitzura jo ahal izango du; ezinbestekoa izango da erreklamazioa aurrez Erreklamazio Zerbitzuaren edo Bezzeroaren Arreta Zerbitzuaren aurrean aurkeztu izana.